

UEMAren-Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea- eta BERRIA TALDEAren arteko ELKARLAN HITZARMENA

Goizuetan , 2012ko ekainaren 9an

ELKARTURIK:

Alde batetik, Joan Mari Larrarte Telletxea, 15998197-H DNI zenbakiduna, adin nagusikoa eta helbidea, hitzarmen honen eraginetarako, Andoainen, Martin Ugalde Kultur Parkean duena, BERRIA Taldearen eta Berria Fundazioaren izenean eta ordezkartzan.

Bestetik, Maren Belastegi 15398233D DNI zenbakiduna, adin nagusikoa eta helbidea, hitzarmen honen eraginetarako, Aulestin, Donibane enparantza 1-1 A-n duena UEMAren izenean eta ordezkartzan.

Alde bietako ordezkariak aitortu diote elkarri hitzarmen honetan xedatzen direnak hitzartu ahal izateko adina legezko ahalmen.

Berria Taldeak eta UEMAK, euskarako komunikabideak eta hauen sustapena euskaren normalizaziorako estrategikoak direla abiapuntutzat hartuz eta helburuetan bat eginik, elkarlanerako ildo hauek

ADOSTU DITUZTE

1. 2012ko ekainaren 9an Goizuetan ospatuko den Udalerri euskaldunen festan bi erakundeen arteko elkarlana sendotzea.
2. UEMAK 2012an 1.200€ dirulaguntza emango dio Berria Fundazioari Berria Komunitate sendotzeko eta Berrialagunen dinamizari bultzada emateko xedez.
3. UEMAK zubi lana egingo du Berria eta UEMAKo udalen artean Berriaren eta eskualdeetako Hitzen sustapena laguntzeko informazioa zabalduz.

Halaber, honako klausula hauek adostu dituzte:

Lehenengoa.- Berria Fundazioak jarduerak dakartzan sarrera eta gastu guztiak behar bezala kontabilizatzeko konpromisoa hartzen du, eta UEMAK eskatuz gero, informazio guztia azaltzeko.

Bigarrena.- Diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo UEMArenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

Hirugarrena.- Diru laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:


- a) Diru laguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Diru laguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Laugarrena. UEMAK diru laguntzaren zati bat itzuli beharra dagoela erabakiko balu, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

Bosgarrena.- Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta indarrean dagoen gainontzeko legedia aplikatuko da.


Harturiko konpromisoekiko adostasuna adieraziz, hasieran azalduko data eta tokian honako hitzarmen hau sinatzen dute bi aldeek.

Maren Belastegi
UEMAko Lehendakaria



Joanmari Larrarte
Berria Taldeko kontseilari ordezkaria eta Fundazioko lehendakaria





UEMA eta HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIAren ARTEKO ELKARLANA SUSTATZEKO HITZARMENA

Goizuetan, 2012ko ekainaren 9an

BILDURIK: Alde batetik, Maren Belastegi, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) ordezkatzuz, Aulestiko Donibane plazan helbideratua.

Eta bestetik, Garbiñe Petriati, Hizkuntz Eskubideen BEHATOKIA ordezkatzuz, Iruñeko Marcelo Zelaieta etorbideko 75. zenbakian helbideratuta.

Bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzeko duten gaitasuna eta eskuduntza onartzen dizkiote elkarri eta ondorengoak adierazten dituzte:

AURRERAKINAK

Bi erakundeon xede nagusia, besteak beste, hizkuntza-eskubideen babesean eragitea da, eta, horren haritik, 2008ko maiatzaren 15ean hitzarmena sinatu zuten bi erakundeek. Hitzarmenaren ibilbidea eta emaitzak kontuan hartuta, bi erakundeok elkarlanean jarraitzeko asmoa dute, euskaldunon hizkuntza-eskubideen babesean eraginkorragoak izateko. Horrenbestez, bi erakundeen helburuak elkarrekin gauzatzeko eta uztartzeko egokiak diren ekimenak bultzatu nahi dira, eta edukiok hitzarmen berri batean zehaztu nahi izan dituzte.

AKORDIOAK

Lehena.- UEMAKo udaletan herritarrak hizkuntza-eskubideen gaineko urraketak salatzeko mekanismoak ezagutzera ematea.

- Udaletxeetan, liburutegietan, kultur etxeetan eta egoki ikusten den udal instalazioetan BEHATOKIAren Euskararen telefonoa zerbitzua iragartzeko karteltxoak jarri.
- Udalak hala onartuz gero, udal bakoitzaren web guneetan *Euskararen telefonoa* web gunearen lotura paratu.

Bigarrena.- UEMAK bere herrietan bere kabuz ikusten dituen hizkuntza-eskubideen urraketan berri ematea BEHATOKIAri.

- UEMAKo udalei euskaraz lan egiteko oztopoak jartzen dizkieten erakunde publikoen salaketa egingo du UEMAK BEHATOKIAri.
- Oztopoak gainditzeko lanketa bateratua egiteko aukera aztertuko dute unean-unean BEHATOKIAk eta UEMAK.

Hirugarrena.- BEHATOKIAk UEMAKo herrietatik iristen diren salaketen berri ematea UEMARI.

- UEMAKo udal batek kexaren bat jasoz gero, BEHATOKIAK berehala emango dio horren berri UEMAKo zerbitzu teknikoari.

Laugarrena.- UEMAKo herrietan hizkuntza-eskubideen gaineko hausnarketa bultzatzeko jarduerak antolatzea.

- BEHATOKIAK hizkuntza-eskubideen gaineko tailerrak eskainiko ditu UEMAKo udalerrietan.
- Tailerren edukiak zehazteko kontuan hartuko da partaideen profila, udalerraren egoera soziolinguistikoa eta horien ezaugarrietara moldatuko da mamia. UEMAKo herrietako tailerretan eta gainerako lanketetan, udalerrri euskaldunetarako hizkuntz politika berezituaren beharraren gaineko edukiak txertatuko dira, baita udalerrri euskaldunek euskararen normalizazio prozesuan duten garrantziaren gainekoak ere.

Bosgarrena.- BEHATOKIAK, hizkuntza-eskubideen urraketen konponbidean abiatzen dituen ekimen berezien lanketa konpartitua burutzea.

- Herritarrek helarazitako urraketa-egoeratik abiatuta, arlo zehatz batean euskal hiztunak bizi duen hizkuntza-bazterkeria agerian uzteko, eta horien konponbiderako neurriak galdegiteko eta lorpenak erdiesteko Eragiten Ekimen Bereziak (EEB) landuko ditu BEHATOKIAK.
- BEHATOKIAK abiatutako ekimenak UEMAKo udalerriren bat hartzen badu edo bertan eragiten badu, lankidetzan arituko dira UEMA eta BEHATOKIA.

Seigarrena.- BEHATOKIAK eta UEMAK hizkuntza-eskubideen urraketen konponbidean egiten dituzten lorpenen gaineko informazioa ematea elkarri eta herritarrei.

- BEHATOKIAK egiten dituen kudeaketen ondorioz UEMarentzat interesgarriak izan daitezkeen lorpenen berri ematea UEMARI.
- UEMAK lorpen horiek bere herrietan txertatzea.
- UEMAK egiten dituen kudeaketen ondorioz izan daitezkeen lorpenen berri eman BEHATOKIARI.
- BEHATOKIAK, lorpena, euskararen telefonoaren erabiltzaileen artean zabalduko du.

Zazpigarrena.- "Aldez aurreko lana" delako ildoan elkarlanean lantzea.

- UEMAKo udalerrietan erreferentzialtasun handiko eremuren bat zabalduko balute, publikoa zein pribatua, horren berri helaraziko zaio BEHATOKIARI eta bi erakundeok elkarrekin jardungo dute hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak har ditzaten eskatzeko.

Zortzigarrena.- Bi erakundeon arteko harremana alde bakoitzetik izendatutako ordezkariak bilduko dituen jarraipen batzorde batek gidatuko du. Batzorde hori urtean bitan elkartuko da gutxienez. Horrez gain, jarraipen batzordea behar den guztietan bilduko da, alde bietariko batek horrela eskatuta.

Bederatzigarrena.- Bi hitzarmen honek urte bateko iraupena izango du izenpetzen den egunetik kontatzen hasita, eta urtez urte luzatuko da bi aldeetako batek bertan behera nahi duela utzi beste aldeari adierazi arte.

UEMAREN izenean

BEHATOKIAREN izenean